

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. 5.000 MILIOI EURO EUROPAKO BABES SOZIALEKO BATAZ BESTEKO GASTURA HELTZEKO
2. MOBILIZAZIO HANDIA BILBON MARTXOAREN 3AN
3. ENPLEGU- PRESTAKUNTZA EREDUA ETA FINANTZIAZIOA
4. TARIFA FINKOA, ENPLEGUA SORTZEKO ERREZETA BERRIA
5. UKRAINA, SUBIRANOTASUN NAZIONALA ETA NAZIOARTEKO DIRU FUNTSA
6. PROPOSAMENA: ZATOZ APIRILAK 2KO JARDUNALDIRA, “ ZORRAREN SISTEMA ETA HERRI AUDITORITZA”

1. 5.000 MILIOI EURO EUROPAKO BABES SOZIALEKO BATAZ BESTEKO GASTURA HELTZEKO

Azken egunetan Bardeetan egin diren praktika militarrek gastu sozialtzat jo ditu Espainiar Estatuko Barne Ministro den Pedro Morenesek. Horrenbesteko astakeriak gobernuen gastuaren lehenetasunak zein diren ikusteko ere balio dute, izan ere, lehenetasunen arabera izaten da egiten den gastua.

Eurostatek, Europako estatistika institutuak, Europako estatuak gastu sozialean zenbat gastatzen duten argitaratzen du, eta honek gure herrialdean egiten den gastuarekin alderatzeko aukera ematen du. Datu honek azaltzen baitu estatu eta herrialde bakoitzeko agintariek gizartearen beharrak bermatzeari zenbateko lehenetasuna ematen dieten.

Europako gizarte babesari buruz argitaratutako azken datua 2011koa da, eta Europar Batasuneko 28 estatuen gastu sozialaren batz bestekoa BPGd-aren %29,1koa da. Hau da, 2011an zehar sortutako 100 eurotatik 29,1 babes sozialera bideratu ziren batz beste Europan. Euroguneko batz bestekoa, bestalde, %29,8koa izan da.

Dena den, estatu ezberdinen artean desberdintasun handiak daude. Gizarte babesean gastu altuena egiten duten estatuak Danimarka (BPGd-aren %34,2), Frantziar Estatua (% 33,6) eta Herbehereak (% 32,3) dira. Eta Euroguneko gastu sozialik txikiena duten estatuak berriz, Luxenburgoko (% 22,5), Espainiar Estatua (% 26,1) eta Portugal (%26,5) dira.

Hego Euskal Herriko gizarte babeseko gastuak aztertzen baditugu, seguruenik inor ez da harrizko Nafarroak Euroguneko gastu sozialik txikiena duela esaten badugu (2011an BPGd-aren % 19,4). Europako batz bestekoa baino 9,6

puntu gutxiago. Honek suposatzen du Nafarroan 1.896,5 milioi euro gehiago gastatu beharko lirakeela babes sozialean Europako batz besteko gastua berdintzeko.

EAEko gastu soziala BPGd-aren % 24,5 izan da 2010ean (argitaratutako azken datua), eta Euroguneko hirugarren txikiena da, Nafarroak eta Luxenburgok dute soilik gizarte gastu txikiagoa. Europako batz bestekotik 4,8 puntura. Honek EAEn Europako batz besteko gastua berdintzeko babes sozialera bideratzen denaz gain beste 3.125,8 milioi euro bideratu beharko lirakeela suposatzen du.

	2010	2011
Danimarka	34,3	34,2
Frantziar Estatua	33,8	33,6
Herbehereak	32,1	32,3
Belgika	30,1	30,4
Grezia	29,1	30,2
Finlandia	30,6	30
15-EB	30,1	29,8
Italia	29,9	29,7
Irlanda	28,5	29,6
Suedia	30,4	29,6
Austria	30,6	29,5
Alemania	30,6	29,4
28-EB	29,3	29,1
Erresuma Batua	27,4	27,3
Portugal	26,8	26,5
Espainiar Estatua	25,8	26,1
EAE	24,5	-
Luxenburgoko	23,1	22,5
Nafarroa	20,2	19,4

Hego Euskal Herrian babes sozialean Europako batz bestekoa baino 5.022,3 milioi euro gutxiago gastatzea erabaki politikoa bat da. Gizartearen pobretzea eragitea erabaki politikoa den moduan. Eta horretan dabilta lan erreformak, murrizketak eta doitzak, pentsioen murrizketak eta abar egiten dituztenean.

Gure agintarien erabakien ondorio dira, adibidez, Bilbon 25.000 pertsona pobrezia sakonean egotea (biztanleen %8), edota

Nafarroan 9.500 familia izatea oinarrizko errentatik bizirauten dutenak.

Datu hauek ez dute esan nahi beste Europako beste herrialde batzuetan egiten den gizarte politika langileontzat egin litekeen politikarik egokiena denik, baina bai beste politika bat egitea posible dela. Eta gastu sozialaren maila, eta pertsonen beharrak bermatzea lehenetasun gisa hartzea borondate politiko kontua dela. Lehenetasun kontua.

2.- MOBILIZAZIO HANDIA BILBON MARTXOAREN 3AN

Martxoaren 3an milaka lagun kalertu zen goizetik Gune plataformak deitutako mobilizazioan parte hartzeko; plataforman biltzen garen sindikatu eta erakunde sozialok aldarrikapen bera dugu: aplikatzen diren politikak errotik aldatu behar dira. Egun horretako ekitaldiak otsailaetik hona egiten ari den Prekariatatearen eta Pobreziaren aurkako Kanpainaren baitan antolatu ziren.

Martxoaren 3an Bilbon goi-bilera ekonomiko bat izan zen, eta bertan egon ziren NMF, ELGE, Eurotaldea, Europar Batzordea, Espainiako gobernua eta Jaurlaritzako ordezkariak. Hots, herritar gehienak pobretzen eta gutxiengoaren mesedetan hartzen ari diren erabakien ardura duten agintariak. Guggenheimen zegoena pobrezia sortu eta hedatzen duen makina zen.

Salatu izan genuen legez, bilera ofizialean elkarri terapia egin zioten, lanak zein ondo egiten dituzten esanaz, eta murrizketa gehiago ezarri behar direla ziurtatuz. NMFko buru den Christine Lagardek lan-eskubideak areago mozteko eskatu zuen. Angel Gurria Ekonomia- eta Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko (ELGE) idazkari nagusiak esan zuen lan-kostuak "lehiakorragoak" izan behar direla, hots, merkeagoak. Eurotaldearen burua den Jeroen Dijsselbloemen arabera, doikuntza eta erreforma laboral gehiago egin beharra dago. Enpresarioak

(Iberdrola, BBVA, Santander eta abarretako presidentek...) aukeraz baliatu ziren eskatzeko beren emaitza-kontuak hobetzeko neurriak behar direla. Horrenbestez, bilera pairatzen dugun hondamendia eragin duten politikak berresteko ekitaldi bihurtu zen.

Jende asko zegoen kaleratzeko prest, esateko gaurko politikak ez dituela onartzen, erabateko aldaketa behar dela herritarren gehiengoaren interesei lehenetasuna emateko, baita pertsonen eta Lurraren zaintzari ere. Horregatik 10.000 bat lagunek Bilboko kaleak bete zituzten, hasieran bi zutabetan eta gero batera. Mobilizazio handi hau oso garrantzitsua zen ikuspuntu politikotik, eta hau berez albistea zen.

Baina ez zen hala izan. Zalantzarik gabe, botere ekonomiko, politiko eta mediatikoak ez du aitzakiarik behar gustoko ez duena ezkutatzeko. Sarri mobilizazio herritar handiak ia oharkabean geratzen dira masa-hedabide handietan. Haatik, hainbat taldek Gune plataformak deitutako manifestazioa erabili zuen istiluak eragiteko (denda eta bankuen erakusleihoak txikitu, edukiontziei su eman, etab.). Besterik ez zuten nahi agintzen dutenek! Ekintza horiek, manifestazioan zihoan jende gehienaren borondatearen kontra, protestaren irudi bilakatu ziren, protesta eta biolentzia lotzea erraztu zuten, eta manifestazioa nahiz egunerako programatuta zeuden ekitaldiak baldintzatu zituzten. Gune plataformak berehala adierazi zuen istiluekiko zerikusirik ez zuela.

Nabarmentzekoa da ere Ertzaintzaren jokabidea: goizeko manifestazioa amaitzea galarazi egin zuen, ekitaldi politikoa prestatu zen tokitik 250 metro eskasera bidea itxi baitzuen, horretarako itxuraz arrazoirik ez bazegoen ere. Salatzen da ere arratsaldeko manifestaziorako ibilbidea aldatu nahi izan zuela, baita onartu ezineko baldintza batzuk ezarri ere; plataformak bertan behera utzi zuen, ondorioz.

Azkenik, EHUren Bizkaia aretoan izan zen hitzaldia ere aipatu beharreko kontua da: Mertxe Larrañagak Troikaren politikak aztertu zituen, Yayo Herrerok agerian utzi zuen egungo eredu ekonomiko eta soziala aldatu beharra eta nola egin daitekeen, eta Iñaki Morenok Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta egiteko prozesuaren berri eman zuen. Mobilizazioa eta borroka ez dira amaitu.

3.- ENPLEGU- PRESTAKUNTZA EREDUA ETA FINANTZIAZIOA

Urtarrilaren 23an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen lanean ari diren pertsonen heziketa emateko diru-laguntza deialdia. Lanbide-heziketa mota hau finantzatzeko gastua 7 milioitik gorakoa izango da. Hau argitaratu eta egun gutxira izendatu da Alberto Pascual.

Diru-laguntza hauek Nafarroako Enplegu Zerbitzutik (NEZ) esleitzen dira; berau da Foru-Erkidegoan enplegu politika aktiboak kudeatzen dituen erakundea. NEZeko zuzendaritza organoak CENek, UGTk eta CCOOek osatzen dituzte.

Lana duten pertsonen heziketa emateko diru partida da partidarik handiena. Honen zenbatekoa langabezia dauden pertsonen heziketa emateko partida baino handiagoa da, Espainiar Estatuan beste inon gertatzen ez den bezala.

2014rako deialdiak 7,04 milioi eurotako gastua aurreikusten du. Hiru erakunde hauetako bakoitzak (CEN, UGT eta CCOO) 2,1 milioi euro baino gehiago jasoko ditu heziketa emateagatik. Gainera deialdiak berak ezartzen du nonbaitetik dirua soberan izango balitz, lehen aukera bezala beraiek hiruak soilik aurkezten diren planetara bideratu behar dela diru hori.

Argi ikusten da Comptos Ganberak eginiko gomendioak ez direla betetzen, hala nola NEZeko zuzendaritza organoetan parte hartzen duen erakundeek, honek emandako subentzioen

onuradun izatea ekiditearena. Comptosek gainera heziketa emateko beste erakunde batzuk parte hartzea ia ezinezkoa egiten duten baremoak berraztertu eta behar bada aldatzeko exijitzen du. Azken finean, CENek, UGTek eta CCOOek erabakitzen dituzte jasotzen dituzten subentzioak, baina dirua Nafarroako aurrekontutik dator.

Eredu honetan parte-hartzen dutenek, eta beraien egiturak dirutza hauekin finantziatzen dituztenak, bai Nafarroan zein EAEn ereduarekin bat datozenak dira, noski!.

EAEn, patronalak, CCOOek eta UGTek Hobetuzen aurrekontutik 7 milioi euro zuzenean beraien artean banatzen dituzte (3,5 milioi patronalari eta 3,5 CCOO eta UGTren artean).

Eusko Jaurlaritzak espainiar gobernuak eskainitako funtsak onartzeak -betiere espainiar eredu aplikatzeko baldintzarekin, eta nahiz eta Hobetuzen oniritziarekin egin ez-, ELA (LABekin batera) 2007. urtean bertatik irtetea suposatu zuela gogora ekarri behar da.

ELA ez dator bat gaur egungo Hobetuzen eta nafar gobernuaren prestakuntza ereduarekin, estatu espainiarraren kopia hutsa eta guztizko porrota suposatu duelako, ez bakarrik kalitate ezagatik baizik eta HEHan dauden benetako prestakuntza beharrei ez erantzuteagatik. Pribatizazioaren aldeko apustua eta diru publikoarekin finantziatzen diren erakunde onura baino ez du suposatzen.

Prestakuntza iraunkorraren adibideak ere agerian uzten du instituzioek elkarriketa soziala dela medio langileriaren kalterako politikak martxan jartzen dituztela, elkarriketa sozialean parte hartzen duten erakundeek diru publikoaren esleipena eta kudeaketa egitearen truke. Rajoyk CEOE, CCOO eta UGTeko arduradunekin izandako azken bilerak, elkarriketa soziala bultzatzeko asmoarekin, prestakuntza profesionala dela medio, horren adibidea da.

Enplegu prestakuntza eredu hau bertan behera utzi beharra dago. ELarentzat, enplegu prestakuntzako funtsak prestakuntza- zentro homologatuetara bideratu behar dira. Onartezina da Eusko Jaurlaritzak eta nafar gobernua orain arteko eredia mantentzea.

4.- TARIFA FINKOA, ENPLEGUA SORTZEKO ERREZETA BERRIA

Espaniar Gobernuak, otsailaren 28an, "enplegua sustatzeko eta kontratazio mugagabea bultzatzeko premiazko neurriak" 3/2014 Errege Dekretu-legearen bitartez onartu zituen. Otsailaren 25 eta abenduaren 31ra bitartean egindako kontratu mugagabeei kontingentzi aruntengatiko kotizazioan 100 eurotararteko deskontua ezartzen da.

Zertan datza aurreratutako tarifa finkoa ?

Tamaina guztietako enpresek 2014ko otsailaren 25etik abenduaren 31ra arte egindako lan-kontratu mugagabeengatan (lanaldi osoak zein partzialekoak izan) kontingentzia aruntengatiko Gizarte Segurantzako kotizazioan 100 euroa arteko deskontua izango dute (100 euro lanaldi osoan, 75 euro lanaldia gutxienez %75ekoa denean eta 50 euro lanaldia gutxienez %50ekoa denean).

Deskontua 24 hilabeteko epean zehar egingo da. 10 langiletik beherako enpresetan epea 12 hilabete gehiagoz luzatuko da, %50eko deskontua eginik.

Deskontu horren onuradun izateko enpresek ze betekizun izan behar dituzte?

- 1.** Ogasun eta Gizarte Segurantzako betebeharrretan egunean izan behar da, bai langilearen alta datarekiko zein deskontua aplikatu bitartean. Tarte horretan hutsegiterik balego hile horretatik aurrera gutxitzea egiteko eskubidea galduko da.
- 2.** Ezingo da deskontuaz baliatu kontratazio

berriaren aurreko 6 hilabeteetan epaileek bidegabe deklaratuak kaleratzerik edota kaleratze kolektiborik burutu badu. Harritzekoa bada ere, otsailaren 25a baino lehen egindako kaleratzeek ez dira kontutan hartzen.

- 3.** Egindako kontratuek enpresako lan mugagabe mailak zein enplegu mailak gora egitea eragin behar dute. Gehikuntza hori kalkulatzeko, kontratua burutu eta aurreko 30 egunetan enpresan lan egindako langile kopuruaren batez bestekoa hartuko da kontutan.
- 4.** kontratazio horrekin enpresan lortutako lan mugagabe maila zein enplegu maila 36 hilabetetan mantentzea (kausa objektiboen ondoriozko kaleratzeak zein bidegabe deklaratu ez diren diziplina-kaleratzeak ez dira kontutan izango).

Rajoyren hitzetan neurriak enplegu garbia sortuko du, kontrara asko dira baieztapen horren aurkako arrazoiak. Jakina da, errezeta zaharra delako, hobariak ez dutela enplegua sortzen, eta ED aztertuta:

- Enpresek kotizazio osoak dituzten langileak kotizazio txikiagoa dutenengatik ordezkatu ditzatketen, kontratazio berririk egin gabe.
- Behin behineko kontratuak mugagabe bihurtu daitezke, langile kopurua handitzen ez delarik.
- Otsailaren 25a baino lehen gertatutako kaleratze kolektiboek, objektiboek eta epaileek bidegabe deklaratu ez dituzten diziplina-kaleratzeek ez dute kotizazioan deskontuak izateko aukera mugatzen eta, bestalde, 6 hilabetez kaleratze horiek burutu gabe egonda posible da deskontuen onuradun izatea, hau da aurretik emandakoak ez dira kontutan hartzen.

Oraingoan ere Rajoyk patronala saritzen du eta betikoak zigortu.

5.- UKRAINA, SUBIRANOTASUN NAZIONALA ETA NAZIOARTEKO DIRU FUNTSA

Europar Batasunak gaitzetsi egin du Krimean deitutako erreferenduma, zeinetan erabakiko den Ukrainaren parte izaten jarraitu ala, aitzitik, Errusiako eskualde autonomia izango ote den; EBren iritziz kontsulta Ukrainaren subiranotasun nazionalaren kaltetan doa, haren lurralde batasuna urra baitezake. Mariano Rajoyk arrapaladan egin du argudioarekin bat.

Agi denez, estatu baten lurralde batasunak une historiko konkretu batean giza eskubiderik oinarritzkoenak urratzea justifikatzen du. ELAk bere garaian Europar Batasuneko Itun Konstituzionala salatu zuen, besteak beste herriek erabakitzeko duten eskubidearen kontrakoa zelako, bere kide diren estatuen lurralde batasuna balio absolutu gisa kokatzen zuelako.

Halere, deigarria da itxuraz Ukrainaren subiranotasun nazionalarekin hain kezkatuta dauden gobernuak printzipio hau erabat zapuztea, hala jokatzeko baitute doikuntza politikak ezarri nahi dituztenean, NMFren edota Ebren maileguak baliatuz. Mailegu hauek jasotzeko ezinbesteko baldintza izan ohi da doikuntza estrukturaleko politikak egitea, eta hauen ondorioak aski ezagunak ditugu.

Ukrainan duela gutxi indarrean egon den gobernuak 2010ean 15.000 milioi dolarreko kreditu bat "lortu" zuen. Kreditu hau, NMFren eta Troikaren estrategian ohi denez, ez zen aldi bakarrean ematen, zatika baizik, hitzartutako doikuntza politikak ezartzen direlako baldintzapean. Gobernuak akordioak ez zituen bete, eta NMFk 2011 amai aldera ez zion diru gehiago eman.

Bota berri duten Ukrainako gobernuari ustelkeria leporatu diote. Hori egia da. Haatik,

gobernu berriaren konpromisorik nabarmenena izan da zorra ordainduko duela. Arsenily Yatsenyuk lehen ministroak esan duenez, "ez daukagu beste aukerarik": neurri lazgarriak aplikatu behar omen dituzte zor publikoa ordaintzeko dirua NMFtik edota EBtik jasoko badute.

NMFk ez du ez du denborarik galdu. Gobernu berria osatu orduko Urkainara misio bat bidali du. Gobernuak "babesteko" borondatea adierazi eta, hasteko, eskari hauek egin ditu: energiarako subsidioak kentzea (2012an BPGdren %7,5 adina ziren; hauei esker herritarren gehiengoak, pobrezian dagoenak, laguntza jasotzen du berogailua piztu ahal izateko); murrizketa handiak pentsioetan (erretiro adina atzeratzea eta alarguentzako pentsioak jaitea, gizonak erretiroa hartu eta gutxira hil ohi diren herrialde batean), meatzen privatizazioa, nekazaritza multinazionalen zerbitzura jartzea, etab. Ez da makala, Ukrainaren burujabetza nazionalaren aitzindarien aldetik. Atzo bezala, gaur ere zinismoa nagusi, gobernuen artean.

Subiranotasun hori benetan aintzat hartu nahi balute, gobernu ustel batek metatu duen zorra ez ordaintzeko aukera kontutan izan beharko lukete: zor ilegítimo gisa har liteke. Baina zorra ordaintzeko helburuan bat datoz gobernu berria eta hartzekodunak. Horretarako herria larrutu behar bada ere. Ukrainak uko egin beharko lioke zor ilegítimoaren ordainari. CADTMko Renaud Vivienek esan duen bezala, "zorrak ilegalak edo ilegítimoak badira, Ukrainak ez ditu zertan ordaindu; ez dago NMFrekin zorrak hartzeko interesik".

Bide egokia litzateke zorraren ordaina eteta eta zor publikoaren auditoritza bati ekitea, erabakitzeko zein zati den ilegítimoa (eta, beraz, ordaindu behar ez dena). Baina antza herriaren interesak defenditzeko asmorik ez dute, ez NMFk, ez Ebk edota AEBk ere. Betiko pelikula.

6.- PROPOSAMENA: ZATOZ APIRILAK 2KO JARDUNALDIRA, “ ZORRAREN SISTEMA ETA HERRI AUDITORITZA”

Oraingoan, ELAk eta Manu Robles Arangiz Institutuak datorren apirilaren 2an, Indautxuko Jesuitas Auditorioan antolatu duten jardunaldian parte-hartzeko proposamena luzatzen dizuegu. Zorraren sistema eta herri auditoritza izango dira aztergai. Bertan gaian adituak diren eta herri auditoretzan esperientzi duten hizlariak izango dira.

Maria Lucia Fattorellik, Brasilgo herri auditoretzaren koordinatzailea, Ekuadorreko zor publikoaren auditoretzaren komisioko kidea eta Brasilgo zor publikoaren parlamentuko komisioren aholkularia, zor sistema eta herri auditoretzaren tresna izango ditu hitz-gai, orain gutxi argitaratutako “Zorraren Herri Auditoretza, esperientziak eta moduak” liburuan, ELAk parte-hartutakoan, jasotakoa.

Antonio Sanabriak, ekonomialaria eta CADTM eta ATTACeko kidea, espainiar estatuko eta Euskal Herriko kasuak aztertuko ditu.

Eta Julie Duchatel, Ginebran dagoen Europa eta Hirugarren Mundua (CETIM) Zentroaren publikazio zuzendaria, sisteman ematen diren zenbait adibide emango ditu.

Orokorrean uste da, kontratatutako kredituen edo jaulkitako tituluak direla medio jasotako sarreraren ondorioz zorrak daudela. Aldiz zor publiko moduan ulertzen diren gehienak ez dira horrela sortu, gizarteri ez baitiote ez ondasunik, ez zerbitzurik ez irabazirik suposatuta. Gainera hauek, gehiegizko kostuengatik, akasdun baldintzengatik, berfinantziatzeagatik, hazi egiten dira, zor berriak behin eta berriz eta handiagoak sortuz, interes tasa handiagoekin, komisioko eta gastuekin.

Horrela argi geratu da zor publikoa ez dela gizartearen beharrezan asetzeko tresna izan, baliabide publikoak finantza sektore pribatura

bideratzeko modua baizik.

Horregatik herriek ordaintzen dituzten zorrak ezagutzearen beharra. Auditoretza prozesu hori ezagutzeko eta dokumentatzeko tresna aproposa da. Gizartearen mobilizazioa dakarren tresna tekniko ezin hobea.

Hizlariak argi dute, eredu aldatu beharra dago, nahiz eta zorra deuseztatu, sistema aldatzen ez den bitartean, honek zor berri bat sortuko du. Horregatik gizarteak formakuntzatik, jardunaldietatik eta herri auditoretza prozesu batetik lortuko duen adimenaren garrantzia, hori jada emaitza positiboa bada ere, etorkizuneko borroka indartuko dituelako.

Animatu zaitez eta parte-hartu!